


**“EZ NAU IZUTZEN NEGU HURBILAK”
POEMAREN AZTERKETA**



Egilea: M. G.
Maila: Batxiler 1. maila
Eguna: 2005eko maiatzaren 12a

Ez nau izutzen negu hurbilak

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako iraute duela
orainak ere geroan
nolabaitezko kate geldian
unez uneko lerroan
guztia present bihurtu arte
nor izanaren erroan.

Ez nau beldurtzen egunsentian
arnas zuridun izotzak
nun dirudien bizirik gabe
natura zabal hilotzak
eguzki eder joan guztien
argia baitu bihotzak
eta begien mila ernegai
iraganaren oroitzak.

Ez nau larritzen azken orduan
arnasa galdu beharrak
bide xumea hesitu arren
amildegiaren larrak,
ardo berriak onduko ditu
mahastietan aihen zaharrak
gure oraina arrazoiturik
beste batzuren biharrak.


Ez nau iluntzen baratzatikan
azken loreak biltzeak
muga guztien arrazoi bila
arnas gabe ibiltzeak
arratsaldeko argi betera
zentzu denak umiltzeak
amets betezko loa baitakar
behin betirako hiltzeak.

Xabier Lete, *Urrats Desbideratuak*.

Kokapena

Poemaren egilea Xabier Lete da, Oiartzunen 1944ko apirilaren 5ean jaiotako idazlea hain zuzen ere.

Ez Dok Amairu taldearen sortzaileetako bat izan zen (1965), Mikel Laboarekin eta Lurdes Iriondorekin batera. Urte hartan bertan bere olerkiak kantatzen hasi zen plazarik plaza. *Errota zahar maitea*, *Nafarroa arragoa*, *Kantatzera noazu* eta *Lore bat, zauri bat* kantak, besteak beste, Euskal Herriko oroimen historikoaren altxorrak dira. Bere lehen poesia liburua 1968. urtean argitaratu zen: *Egunetik egunera orduen gurpilean*.



Baga, biga, higa (1970) ikuskizunean parte hartu zuen, eta hainbat emanaldi eman zituen, beste taldekideekin batera. 1975etik 1978ra Antton Valverderekin kantatzen aritu zen, eta bertso zaharren bertsio berriekin bi disko atera zituzten.

Ordurako, Bigarren poema liburua (1974) argitaratu zuen. 1977an, eta Eugenio Arozenarekin batera, *Antzerkia deuseztik izatera* lana argitaratu zuen; bertan dago *Txirritaren astolasterra* antzerkia .

1978an, agertokietatik aldendu eta kantagintzari utzi zion. 1981ean, *Urrats desbideratuak* poema liburua argitaratu zuen. Ondoren, sorkuntza lana utzi eta Gipuzkoako Aldundiko Kultura sailean jardun zuen, Zuzendari eta Sailburu.

Jarduera horren ondoren, bi disko kaleratu zituen: *Eskeintza* eta *Hurbil iragana*. 1992an *Biziaren ikurrak* poema bilduma argitaratu zuen.

Enrike Zabala kritikariaren hitzetan, "Leteren poesiak ulerterrezak dira. Hizkera herrikoi, aberats eta indarduna. Expresio-indar handikoa. Herri-literatura menderatzen duela ikusten da, baita literatura zaharra eta berria ere".

ARGITALPENAK

ANTZERKIA

Antzerkia deusetik izatera
1977, Itxaropena

POESIA

1968

Egunetik egunera egunen gurrpilean Hegosa Cinsa

1974

Bigarren poema liburua Gero Mensajero

1977

Antzerkia deusetik izatera Itxaropena

1981

Urrats desbideratuak GAK

1992

Biziaren ikurrak Erein

1992

Zentzu antzaldatuena poemategia Euskaltzaindia BBK

Beraz, *Ez nau izutzen negu hurbilak* poema, *Urrats Desbideratuak* poema liburuan agertzen da eta, egilearen lan osoan leku garrantzitsu bat betetzen du, preziatuenetarikoa bilakatu delarik; Lete existentzialista bezala deskribatu izan da askotan, obsesio ikaragarria du bizia eta heriotzaren artean dagoen muga horrekin eta poema honetan bere beldur horiek azaltzen ditu behin eta berriz. Jeneroa lirika da, egileak momentu oro adierazten ditu bere sentimenduak; bere burutazioak azaltzeko egindako poema dela esango nuke. Poema edo kantua da, geroago azalduko dudan neurri eta errima zehatzez egina. Batuan idatziriko olerkia da, horrela, batuaren bitartez poema zoragarriak egin daitezkeela argi uzten du Letek. Espresaerari dagokionez, narrazioa nabarmentzen da, nahiz eta deskribapen kutsu bat ere sumatzen dudana, heriotzaren inguruan aritzen delako eta gai horri buruz hausnarketak egiten dituelako. Lehenengo pertsonan kontaturiko monologo edo bakarrizketa eran aurkezten digu Xabierrek poema, bera eta irakurlearen artean elkarrizketa dagoelako; beraz, elkarrizketa egotekotan egilea eta irakurlearen artean egongo litzateke.

Edukia

Poema orokorrean gai zehatz bati buruz aritzen da; bizitzaren amaiera, hau da, heriotzari buruz. Beste irtenbiderik gabe, onartu beharreko gaitza edo bizi legetzat irudikatzen du Xabierrek heriotza; bizia duen edozerk bere heriotza edo amaiera duelako. Hainbat aspektuekin eta ingururekin lotzen du bizitzako

azken une hori, amaierako momentua dela adierazteko: “negu hurbilak”, “ ez nau iluntzen baratzatikan azken loreak biltzeak”...

Ikuspuntu subjektiboa erabiltzen duela uste dut, olerkian zehar ausardien eta beldurren berri ematen baitu idazleak. Egoera ilunean edo goibelean (tonu tristean) deskribatzen du heriotza, bizirik gauden inork nolakoa den ez dakigun bitartean. Beraz, egileak heriotza gaitzat edo txartzat hartzen du.

Testuan ageri den pertsona gramatikala lehenengo pertsona da. Egileak bere esperientzia propioa kontatzen du eta horretarako lehenengo pertsonaz baliatzen da.

Beraz, kontakizuna idazleari buruz ari denez, esan genezake haren partehartzea oso nabarmena dela.

Poema lau zatitan dago banaturik, zati bakoitza estrofa edo ahapaldi bati dagokiolarik.

Lehenengo zatian, denboraren iraganaz aritzen da, eta beraz, zahartzaroaren hurbiltasunaz eta honek dakarren bizitzaren amaiera misteriotsuaz. Oraina udaren bidez adierazten da, urteko urtaro alaitsuenetarikoa udaberriarekin batera, eta geroa, berriz, neguaren bidez deskribatzen da, goibeltasunaren “sinboloa” izanik. Azken honekin tristura islatu nahi du, iluna den zeozer balitz bezala irudikatzen du heriotza.

Bigarren ahapaldian, bere burua konbentzitu nahian dago idazlea, denbora aurrera doan arren, oroitzapenak beti geldituko direla argi utziz. Denbora igarotzeak ez duela zertan izan guztiz txarra esan nahi duela uste dut; igaropen horri alde positibo bat atera nahi balio bezala.

Hirugarren estrofan, heriotzaren ondoren bizitza egoten jarraituko dela adierazten da. Belaunaldi berriek zaharrak ordezkatzeko dituzte, bizitzaren ardatz nagusi bilakatuz, amaierarik gabeko errelebo gisa agertzen da bizitza: batzuk joan egingo dira, baina beste batzuk izango dira haien lekua betetzen.

Laugarren eta azkeneko zatian, momentu batean bizirik dagoen zerbait hil eta hilotz, hau da, gorpu soila bilakatzen dela adierazten du. Ukaezina den errealitatetzat jotzen du behin betirako loa eta horregatik onartzea besterik geratzen ez zaiola antzematen dut. Hori dela eta, une oro bere burua konbentzitu nahian dabilela uste dut, ezin delako aukeratu bizitzaren norabidea edo behintzat norabide horren amaiera, beti berdina eta aldaezina baita.

Forma

Testua poesiatzat har dezakegu. Horrez gain, errimadun eta neurri finkodun bertsoa –lau bertso konkretuki- dela argi geratzen da, neurria zortziko handia izanik. Lau ahapaldiz osaturiko bertsoa da, beraren barnean zortzi lerro izanik eta lerro bakoitiak hamar silabakoak eta bikoitiak zortzi silabakoak direlarik.

----- 10
 ----- 8
 ----- 10
 ----- 8
 ----- 10
 ----- 8
 ----- 10
 ----- 8

Beraz, ahapaldi bakoitzak lau puntu ditu. Horrez gain, errimadun hitzak, oinak, lerro bikoitien amaieran daude kokaturik eta hauexek dira:

Lehenengo parrafoa: *beroan, geroan, lerroan, erroan.*

Bigarren ahapaldia: *izotzak, hilotzak, bihotzak, oroitzak.*

Hirugarren estrofa: *beharrak, larrak, zaharrak, biharrak.*

Laugarren zatia: *biltzeak, ibiltzeak, umiltzeak, hiltzeak.*

Baliabideak maila morfosintaktikoan:

Poeman zehar kategoria gramatikalen aniztasuna ematen da, denetarik dago: izenak, izenondoak, aditzak...

Ahapaldien artean paralelismoa dagoela esango nuke, guztien hasieran “ez nau (izutzen,beldurtzen...)” esan eta ondoren azalpena ematen baitu, eskema gramatikal berdina ematen da. Honekin esan nahi dudana, estrofa guztietan antzeko edo egitura berdina mantentzen dela da, bereziki estrofa bakoitzeko lehenengo bi lerroetan.

Anafora dudarik gabe bada poeman zehar, zati bakoitzaren hasieran hitz berdinak errepikatzen baitira:

“Ez nau izutzen”

“Ez nau beldurtzen”

“Ez nau larritzen”

“Ez nau iluntzen”

Epitetoren bat ere agertzen da, hala nola, “eguzki eder joan guztien argia baitu...” , ez baita beharrezkoa eguzkiari buruz adjektibo horiek ematea.

Sinonimia, hau da, zenbait hitzek esanahi berbera edukitzea, kasuren bat ematen da olerkian zehar, gauza berberari buruz hitz egiteko sinonimo ezberdinak erabiltzen baititu. Adibidez: “izutzen, beldurtzen”.

Beste baliabide batzuen gainera poema honetan metaforekin batera argi eta garbi ematen dena pleonasmoa da, testu osoan zehar ideia berdina

errepikatzen baita espresaera ezberdina erabiliz baina ideia berbera adieraziz. Honen arrazoia egileak bere burua idazten dagoenari buruz konbentzitu nahia izatea izan daiteke.

Poema bertsoztat jo dezakegunez, eta beraz, neurri neurtuz eginikoa denez, errima lortzeko sarritan ohizko orden morfologikoa aldatu egiten du. Adibidez:

“nun dirudien bizirik gabe
natura zabal hilotzak”

Normalean, aditza amaieran joan behar du, baina errima egiteko ohizko ordena aldatuta agertzen da.

Baliabideak maila semantikoan

Konnotazio kasu batzuk ematen dira olerkian, adibideen bitartez ondo egiaztatuko dudana bezala:

“azken loreak”: niri behintzat zerbaiten amaiera adierazten dit eta, beraz, “azken loreak biltzeak” esango nuke azken gauza, azken ekintza egitea dela.

“amets betezko loa”: honek ere zerbaiten amaiera ekartzen dit gogora, heriotzaren hurbiltasuna gogorarazten dit.

“negu hurbilak”: goiz helduko den zerbait adierazten dit.

Beste baliabide batzuen gainera, testuan nabarmentzen den ezaugarrietako bat metafora da. Ia poema osoa dago metaforaz josita. Orokorrean, metafora gehienak heriotzaren inguruan aritzen dira, horretarako naturaz edo urtaroez baliatuz.

Zatika aztertuko ditut metaforak:

Lehenengo parrafoan:

“nolabaitezko kate geldian
unez uneko lerroan”

→ denbora astiro igarotzen dela dirudien arren, arrapaladan pasatzen da, eta horregatik une oro probetxuz hartu behar da. Denboraren iragana, lerroz beteriko kate geldi batekin aldaratzen du.

“guztia present bihurtu arte
nor izanaren erroan”

→ gutxinaka, etorkizunerako bidaiari sartzen gara eta konturatu gabe etorkizuna oraina bilakatzen da; denborak bere preso bilakatzen gaitu.

“Negu hurbilak” etorkizuna edo goiz helduko den geroa adierazten du.

“Uda betezko beroan” oraina adierazteko erabiltzen du.

Bigarren ahapaldia:

“ez nau izutzen egunsentian
arnas zuridun izotzak
nun dirudien arnasik gabe
natura zabal hilotzak
eguzki eder joan guztien
argia baitu bihotzak
eta begien mila ernegai
iraganaren oroitzak.”

“egunsentian”: geroa adierazteko erabiltzen du.

“arnas zuridun izotzak”: gaitza, arazoa adierazten du.

“eguzki eder joan guztien”: iragan den denbora eta ekintza oro.

“argia baitu bihotzak”: oroitzapenak geratu egiten dira bihotzean.

Hirugarren parrafoa:

“Ez nau larritzen azken orduan
arnasa galdu beharrak
bide xumea hesitu arren
amildegiaren larrak,
(ardo berriak onduko ditu
mahastietan aihen zaharrak) → belaunaldi berriek zaharrak
ordezkatuko ditu.
gure oraina arrazoiturik
beste batzuren biharrak.”

Laugarren zatia:

(“Ez nau iluntzen baratzatikan
azken loreak biltzeak) → azken ekintza egitea, azken arnasa
hartzea...
muga guztien arrazoi bila
arnas gabe ibiltzeak
arratsaldeko argi betera
zentzu denak umiltzeak
amets betezko loa baitakar
behin betirako hiltzeak.”

Azkenik, aipatu behar dut antitesiren bat edo beste agertzen dela, kontrako esanahiko hitzak gertu agertuz. Esaterako:
“negu-uda”
“oraina-geroa”
“oraina-biharra”

Hizkuntz funtzioak

Poema honen funtzioak, bereziki, hunkitzailea eta poetikoak dira. Funtzio hunkitzailearen ezaugarriak sentimenduen agerpena da eta testu honetan egileak argi eta garbi adierazten ditu bere ausardiak eta bere burutazioak. Lehenengo pertsonan idatzirik egotea funtzio hunkitzailearen beste ezaugarri bat da.

Aldi berean, olerkiak funtzio poetikoa ere badu; alde batetik, olerkia delako, poema delako, eta bestalde, adierazten diren sentimendu guztiak baliabide ezberdinen bitartez atonduak egotea nahi izan duelako Letek. Horrela, bere pentsamenduak era apaindu batean azaltzen dizkio irakurleari, era poetikoan hain zuzen.

Iritzia

Nire ustez, “ez nau izutzen negu hurbilak” poema landua eta sakona da. Egia esanda, aitortu behar dut baloraziorako txostena edo azterketa hau egin baino lehenago ezagutzen nuela olerkia eta hain nuen gustuko lehen ahapaldia buruz nekiela. Xabier Leteren poema liburuan egotetik kanta herrikoa izatera iritsiko dela uste dut, jada badagoelako kanta herrikoien liburuetan adierazita, eta horren bidez ezagutu nuen nik poema hain zuzen ere. Gainera, zortziko handian kantatu daitekeen edozein bertso bezala hartu daiteke poema eta beraz erreza da olerkiari doinu ezberdinak jartzea.

Denboraren botereaz hausnartzen du egileak, geldiezina den denbora gure menpe ez dagoela baieztatuz, eta hori arraroa da dena kontrolpean izan nahi duen gaur egungo gizartean. Bizitzaren gutxinakako kontsumoa ukalezina da, eta egunero pixka bat zaharragoak gara, denbora agortuz doan bitartean guretzat guztiz ezezaguna eta misteriotsua den heriotzaren muga beldurgarria hurbilduz goaz. Baina, paradoxa bat dirudien arren, gauza bat galtzen dugunean beste bat irabazten dugula uste du egileak, nik ere horrela uste dudalarik: denbora xahutuz badoa ere irabazi garrantzitsu bat daukagu: oroitzapenak. Igarotako denbora hori ez da debalde igaro, bizitzeko igaro da, ekintza ezberdinak burutzeko eta ondoren horien bitartez esperientzia berriak ikasi eta gure oroimenean betirako geratuko diren gomutak izateko.

Lehenago esan dudan bezala, gutxinaka heriotzaren muga beldurgarria hurbiltzen goaz, baina muga hori ez du zertan beldurgarria izan behar.

Nolakotasun hori ezjakintasunak ezartzen du, misterioaren aurrean gizaki gehienok hartzen dugun jarrera beldurra izan ohi da.

Poeman beldur hori azaldu egiten da, egileak horrela nahi ez duen arren. Bere asmoa, agian, bere burua konbentzitzea da, heriotzari beldurrik ez diola sinistaraziz. Kontraesana badirudi ere, egileak bere ausardia erakutsi nahi du denboraren iraganaren eta bizitzaren amaieraren aurrean, baina hainbat alditan errepikatzen duenez bere ausardi hori, bere burua esaten duenaz konbentzitu nahi duela dirudi, bere ausardia hainbat aldiz idatziz.

Poemaren alde negatiboa, bere seriotasuna iruditzen zait. Gaia berez oso goibela da eta batzuetan gogoratu nahi ez nituzkeen gauzak ekartzen dizkit gogora, askotan ez delako beti etorkizunera begiratu behar, oraina ondo gozatu behar dela uste dut, arazoei aurre egiteko ordua helduko zaigulako nahitaez, baina horregatik ez dugu zertan bizitza osoa gaitz berdinean pentsatzen ibili behar. Agian, nire aburuz, bizitzeko era pozgarriena, fantasiako bizitza da; beti pentsatu izan dut haurren poztasuna ezjakintasunean oinarritzen dela, gehienetan bizitzako alde positiboak soilik ezagutzen dituztelako. Beraz, arazoei kasu gutxiago eginez eguneroko bizitza eramangarriagoa da.

Orokorrean, poema asko gustatu zait. Letek, denok dugun beldur hori aireratu du olerkian, baina guztia era metaforikoan azaldurik. Metaforek testuari balore handiagoa ematen diote, horrela, irakurleak hitz bakoitza ulertu eta interpretatu behar du, eta hor dago beraz, poemaren gakoa.

Poemaren hausnarketa egin baino lehenago, zenbait alditan irakurri behar da, esanahia ulertu ahal izateko, esaldirik txikiak ere garrantzi handia baitu.

Beraz, denok buruan bueltaka dugun gai kezkarri bati buruz mintzatzen den metaforaz beteriko olerkia bezala definituko nuke “ez nau izutzen negu hurbilak” poema.